



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoak 1

Vitoria-Gasteiz, 1 de marzo de 2016

Lehendakaritza

**EUSKO JAURLARITZAK MARGARITA URIA PROPOSATU DU
EUSKADIREN ORDEZKARIA IZAN DADIN DATUAK BABESTEKO
ESPAINIAKO AGENTZIAKO AHOLKU BATZORDEAN**

- **Jose Ignacio Pariente de Pradak hutsik utzi duen kargua beteko du, pasa den urtarrilean Datuak Babesteko Euskal Agentziako zuzendari kargutik kendu zuten eta.**

Gobernu-kontseiluak gaurko bileran erabaki du Datuak Babesteko Euskal Agentziako zuzendari Margarita Uria proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaria izan dadin Datuak Babesteko Espainiako Agentziako Aholku Batzordean.

Era horretan, Jose Ignacio Pariente de Pradak hutsi duen kargua beteko du, pasa den urtarrilaren 26an Datuak Babesteko Euskal Agentziako zuzendari kargutik kendu zuten eta.

Erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 38. artikulua ezarritakoa beteko du; alegia, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariak aholku emango dion Aholku Batzorde bat izan behar du, Datuak Babesteko Agentzia bat dagoen autonomia-erkidegoko ordezkari osatuko dena.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

MEC PROGRAMA % 7,3 HAZI DA ETA 3.683.000 EURO BANATUKO DITU MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO LAGUNTZETAN

Merkataritza-saltokiak modernizatzeko MEC laguntza-programaren helburua euskal merkataritza-saltokien berrikuntza eta kudeaketa-tresnen eta azpiegituren hobekuntza sustatzea da. Aurtengo aurrekontua 3.683.000 eurokoa da, % 7,3 handiagoa, eta helburu horiek lortzeko laguntza-lerroetara bideratuko dena.

Establezimenduen eta zerbitzuen erakar-ahalmena areagotzeko saltokiek behar dituzten inbertsioak estaltzen ditu laguntzak, balio erantsi gehien ematen dutenak, salbu eta lokalak eskuratzeko edota ibilgailuak erosteko direnak.

Laguntzak itzuli beharrik gabekoak izango dira. Higiezinako inbertsioek, obra zibilek, ekipamenduek edo errotuluek % 15eko diru-laguntza jasoko dute, eta informatika-ekipamenduek, aplikazioek eta horien osagarriek, % 20koa.

Laguntzen onuradunak hauek dira: Enpresa Txiki eta Ertainak (ETE), haien oinarrizko jarduera, negozioaren bolumenaren arabera, merkataritza bada eta Euskadiko establezimenduetan inbertitzen badute.

Laguntzak merkataritza-jarduera garatzen duten enpresei zuzendutakoak dira, merkataritzatzat honako hau hartzen delarik: horretarako eskuratutako gaiak edo salgaiak merkaturatzea; edo ekoizle, artisau edo industrialariak egiten dituzten azken kontsumo-ondasunak zuzenean saltzea, hirugarrenei eskaintako ekoizpen-prozesuetarako, merkataritza-prozesuetarako edo zerbitzuak eskaintzeko ondasunak kontuan hartu gabe.

Ekarpenak handitu daitezke, baldin eta enpresak elkartu badira, kalitate-ziurtagiriren bat lortu badute edo kudeaketa-softwarea eskuratzeko inbertsioa egin badute, langileek merkataritza-sektorearekin zerikusia duen titulu arauturen bat edo lanbide-ziurtagiriren bat badute, enpresa emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako entitate laguntzaile gisa aitortu badute, edota enpresa-transmisioko programaren batean parte hartu badu.

Inbertsioek 900 eurotik gorakoak izan behar dute informatika-ekipamenduetan, edo 3.000 eurotik gorakoak gainontzekoetan.

Interesdunek uztailaren 15era arteko epea dute eskariak aurkezteko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein tokitan.

Ogasuna eta Finantzak

**AKORDIOA, BAIMENA EMATEN DUENA EUSKAL ESTADISTIKA
ERAKUNDEAREN ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO
MERKATARITZAKO ERREGISTRATZAILEEN ETA JABETZA ETA
MERKATARITZAKO ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOEN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO**

Gobernu-kontseiluak baimena eman du Euskal Estatistika Erakundearen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Merkataritzako Erregistratzaileen eta Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren arteko lankidetzahitzarmena sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-erregistroetan jasotako erregistro-inskripzioen eta urteko kontuen aprobetxamendu estatistikoa xede dela.

Eustatek dagoeneko hamar urte egin ditu administrazio-informazioa bateratzen, dagozkion eragiketen informazio-iturri estatistiko gisa erabiltzeko. Estatistikei buruzko Europako Jardunbide Egokien Kodearen arabera, erabiltzaileen beharren arabera izan behar da zama. inoiz ez gehiegizkoa inkestatuentzat. Horretarako, administrazio-iturrietara jotzen da, informazio-eskabideak bikoiztea saihesteko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

712.000 EURO IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO (PREST_GARA 2016/17)

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, onartu du Sail horrekin elkarlanean ari nahi duten erakunde publiko eta pribatuak, Prest_Gara 2016-2017ko ikasturtean Irakasleak Etengabe Prestatzeko Plana aurrera eramateko, proiektuak aurkeztera deitzen dituen agindua.

Ondorengo jardueretakoren bat egitera zuzendutako proiektuak diruz laguntzea du agindu honek, 712.000 euroko zenbatekoan, helburu:

Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak: 2016-2017ko ikasturtean (200.000 €) eta 2016ko udan (110.000 €) egingo direnetarako.

Prestakuntza-jarduerak (atzerriko hizkuntzetan prestatzekoak izan ezik), unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-etapa desberdinetako irakasleen, heziketa-zikloetakoak kenduta, gaitasun profesionalak garatzeari buruzkoak, eta indarreko eskola-curriculumari eta Hezkuntza Sailak ezarritako jarduereremuei lotutakoak. 132.000 € erabiliko dira 2016ko uztailaren 4tik urriaren 31ra bitartean egingo direnetarako eta 200.000 €.

Eta, Sailak aurreikusten ez zituen arren, erakunde laguntzaileek proposatu dituzten prestakuntza-jarduerak, haien edukiarengatik, ikuspegiarengatik edo izaera berritzailearengatik irakasleen etengabeko prestakuntzarako interes berezia badute: 70.000 euro.

Legez osatuta dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzeko jarduerak, Prest_Gara planaren barruan, egiten dituzten, edo egiteko prest dauden, erakunde publiko edo pribatuak izango dira deialdi honen onuradun. Deialdi honen ondorioetarako, prestakuntza-jarduerak egitea helburu duten irabazteko asmorik gabeko federazio eta elkarteak eta pertsona juridikoak joko dira erakundetzat.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

50.000 EURO GEHIAGO PERTSONAL IKERTZAILEA PRESTATZEKO DOKTORETZA AURREKO PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du honako agindu hau aldatzea: Pertsonal Ikertzailea Prestatzeko Doktoretza Aurreko Programa aplikatzen dena ez diren beste zentro batzuetan egonaldietarako diru-laguntzak deitzen dituen.

Aldaketa horrekin egonaldi horietarako zenbatekoa 240.000 eurokoa izatetik 290.000 eurokoa izatera pasa da.

Pertsonal horrek ikerketa zientifiko eta teknikoan prestakuntza hobea izatea izango dute egonaldi horiek helburu eta, horretarako, jarduera hauek gauzatuko dira: ikerketa-jarduerak aurrera eramatea, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, fondo bibliografiko eta dokumentalak kontsultatzea eta, aurrera eramaten ari den tesi-proiektuaren testuinguruan, pertsonal horren prestakuntza zientifiko eta teknikoaren onerako izango den, haren tesiaren garapena sustatzen duen eta nazioarteko doktoretza lortzeko erraztasunak ematen dituen edozein ikerketa-jarduera.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

840.000 EURO PRAKTIKA SORTZAILEAK BULTZATZEN DITUZTEN KULTURGUNEENTZAKO (SORGUNE DEIALDIA)

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Sorgune deritzon deialdia arautzen duen Agindua. Deialdi honek, praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturgune independenteak laguntzen ditu diruz.

840.000 euroko diru-kopuruarekin, Sorgune deialdiak kulturgune independenteek aurkezten dituzten jarduera-proiektuei diru-laguntzak ematen dizkie. Programa espezifikoak antolatuz eta horretarako diru-hornidura, azpiegitura eta egitura egokiak erabiliz, hainbat prozesuri (ekoizpena, prestakuntza edo kulturaren edo artearen alorreko eskuhartzea) ekiteko espazio, baliabide eta lankidetzarako laguntza eskaini behar dizkiete pertsoneri zein kolektibo sortzaileei, betiere orientabidetzat hartuta adierazpen artistikoen berrikuntza, talentuak hautematea eta bultzatzea, partekatutako kudeaketa erabiltzea eta ingurune hurbilarekiko harremana.

Jarduera-proiektu horiek hainbat motatako kultura edo sormen-sektoreri lotuak izan daitezke, hala nola, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia, zirkua, magia edo bertsolaritza, besteak beste.

Diru-laguntza hauen gehienezko zenbateko orokorra bi modalitatetan banatuko da: batetik, 560.000 euro sorkuntzako kulturgune independenteen biurteko jarduera programetarako (Sorgune biurteko modalitatea), eta bestetik, 280.000 euro kulturguneen urteko jarduera programetarako (Sorgune urteko modalitatea).

2015eko ekitaldian, Euskadiko 12 kulturgunek jaso zuten kultur sorkuntzarako diru-laguntza Sorgune deialdiaren bidez.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

626.800 EURO LITERATURA ARGITALPENENEN EKOIZPENERAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 2016 urtean literatur izaera duten argitalpenentzat laguntzak emateko deialdia egiten duen Agindua onartu du.

Deialdi honek, Euskadin literatura lanen edizioa bultzatzea du xede. Horretarako, argitaletxeen urteko edizio planen kostuak laguntzen ditu diruz, bai euskarazko literatura lanenak, bai gaztelaniazkoenak. Diru-laguntza horien finantziatorako 628.000 euro bideratzen dira, bi modalitatetan banaturik:

- Euskarazko literatur lanen ekoizpena, 511.800 euroko diru-kopuruarekin
- Gaztelaniazko literatur lanen ekoizpena, 115.000 euroko diru-kopuruarekin

Diru-laguntza jasotzeko interesaturik dauden enpresak modalitate bakarrera nahiz bietara aurkeztu ahal izango dira. Diru-laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, 2014 eta 2015 urteetan gutxienik hiru egile desberdinen 5 liburu argitaratu dituzten argitaletxeek (izan merkataritza-sozietateak edo izan pertsona fisikoak).

Urteko edizio planean aurkezturiko liburuak, genero hauetakoren batekoak izan beharko dute: eleberria, ipuina, poesia, antzerkia, haur eta gazte literatura, komikia edo literatura saiakera. Euskarazko ekoizpenaren kasuan, humanitate-saiakera liburuak ere onartuko dira.

2015ean, 20 argitaletxeren euskarazko edizio planak lagundu ziren diruz, horien baitan 362 liburu argitaratu zirelarik (paperean nahiz digitalean), bai eta 12 argitaletxeren gaztelaniazko edizio planak ere, 168 libururekin (hauek ere bi formatuetan).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

OIARTZUNGO BELOAGA GAZTELUA ETA ARKALEKO GOTORLEKUA HARTZEN DITUEN EREMU ARKEOLOGIKOA KULTURA ONDASUN DEKLARATU DA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Oiartzungo (Gipuzkoan) Beloaga gaztelua eta Arkaleko gotorleku-multzoa hartzen dituen eremu arkeologikoa Kultura Ondasun (monumentu-multzo kategoriarekin) deklaratu duen Dekretua.

Interes historiko eta arkeologiko handiko aztarnategia osatzen du eremu honen, eta bere baitan hartzen ditu, erdi aroko gazteluaren aurriez gain, XIX eta XX. mendeetan inguru horretan izandako jardura militarren aztarnak ere.

Arkaleko haitzak arku formako gailur menditsuak dira, eta Oiartzun aldera datorren Irundiko sarrera ixten dute. Beraz, puntu estrategikoa izan da Gipuzkoan. Horrexegatik dago, hain zuzen ere, gailurrean aztarna arkeologikorik gehien.

Gailurrean erraz ikus daitezke defentsa-egitura osatzen duten lauki itxurako barrutiak. Egitura hauek zenbait puntutan haitz naturala baliatzen dute, eta manposteriazko harresi sendoek tartean gelditzen diren hutsuneak ixten dituzte. Harresi hauek sendoagoak dira hegoaldean.

Erdi aroko gazteluaren aurriak, eta haren gainean XIX. mendean liberalek eraikitako Arkaleko gotorlekua ageri dira gailurrean. Egun oraindik ikusgarri dauden hondakin gehienak azken gotorleku horrenak dira. Horma sendoak argi asko ikusten dira urrunetik ere. Goiko parteko plataformak turuta itxurako irteera bat du ekialderantz. Dirudenez, gunehorri itxiera ematen zion eta egun desagertuta dagoen tiratzaileen gunehorri bat zegoen bertan, munizioarentzako biltegi eta guzti.

Mendia iparretik hegora zeharkatuz, beheago, malda leunagoa den inguruan, bi sarrera irekitzen dira haitzean, bi aho bailiran. Mendia alderik alde zeharkatu ondoren, bi behatokitik dute amaiera: bata bukatua dago, eta bestea zulatua baina bukatu gabea. Barneko pasabideetan arrapalak, eskailerak eta gelaxkaren bat ikus daitezke. Zenbait tartetan hormak hormigoiz estalita ageri dira. Galerietako baten sarreran armadako ingeniarien ezkutua dago arkuaren erdigunean. Behatokiaren iparraldeko irteeran behaketa-postuetako bat hormigoiz egina da, bunkerra bailitzan. Beste irteerak haitzuloa dirudi, zulaketa lanak eginak egonagatik ere, ez baitu beharrezko erremate eta egitura militarrik.

Eremu arkeologikoa Kultura Ondasun deklaratu duen Dekretuak, era berean, beronen zedarritzea eta babes erregimena ere ezartzen ditu. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Kultura Ondasun hau Sailkatutako Kultura Ondasunen katalogoan inskribatuko du (Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren baitakoa).

Segurtasuna

SEGURTASUN SAILAK ITSAS SALBAMENDURAKO SEI ITSASONTZI ERABILTZEKO LAGAPENA BERRITU DIO GURUTZE GORRIARI

- **Laguntza-zerbitzua eskaintzen dute euskal kostaldean**

Gobernu-kontseiluak, Ogasun eta Finantza eta Segurtasun Sailen eskariz, itsas salbamendurako sei itsasontzi erabiltzeko lagapena berritu dio Euskadiko Gurutze Gorriari, kostaldean laguntza-zerbitzua eskaini dezan.

Honako itsasontziak dira: *Hondarribia II*, *Arriluce II*, *Guadalupeko Ama* eta *Bermeo*, bost urterako lagako direnak; eta *Dhube* eta *Merak* itsasontziak, 2018ko ekainaren 1era eta 2019ko otsailaren 20ra arte hurrenez hurren.

Hasierako lagapenen aginduetan jasotakoaren arabera, itsasontzi horiek kostaldean egin beharreko salbamendu-lanetan erabili behar dira.

Sei itsasontzi horien erabilera-lagapena berritzea, Segurtasun Sailak, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bitartez, segurtasun publikoaren Euskadiko sarea osatzen duten erakunde, elkarte eta taldeekin abian jarritako erakunde-lankidetzarako akordioen eta hitzarmenen barne dago. Aipatutako sei itsasontzi horien erabilera-lagapena kontuan hartuta, Gurutze Gorriak, gaur-gaurkoz, 13 itsasontziko ontzidia kudeatzen du.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATU DITU GUARDIAKO URMAELAK

- Europako erakundeek Europar Batasunean biodibertsitatea babesteko egin duten apustu nagusia den Natura 2000 Sarean egongo dira aurrerantzean
- Euskadiko Natura Sarea Batasunaren intereseko 52 lekuk (BIL) osatzen dute. Horietako 46 (% 88) dagoeneko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dituzte
- Ana Oregi, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua: «Besteak beste, Natura Sareari esker, Euskadin babestua dagoen lurraldea % 10etik % 21era pasa da»

Gobernu-kontseiluak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu ditu gaur **Guardiako urmaelak**, Natura 2000 Sarearen barruan. Horrela, Arabako Errioxako eremu hori Europako naturagunean sartuko da. Europako erakundeek Europar Batasuneko lurraldeetan biodibertsitatea babesteko egin duten apustu nagusia da Natura 2000 Sarea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu **Ana Oregik** esan duenez, «Batasunaren intereseko habitat naturalak eta fauna eta flora basa-espezieak kontserbazio-egoera mesedegarri batean zaintzea eta lehengoratzea. Era berean, basa-hegaztiak eta hegazti migratzaileak eremu horretan egon, biziraun eta ugaltu ahal izatea bermatuko du, Europako lurraldearen biodibertsitatearen kontserbazio-jarduerekin bat eginez».

Natura 2000 Sarea 27.384 espaziok osatzen dute eta Europar Batasuneko lurraldearen % 18,14 hartzen du; orotara, 1,1 milioi km²-ko azalera. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Sarea Batasunaren garrantzizko 52 lekuk (BGL) osatzen dute. Horietako 46, hots, % 88, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu dituzte dagoeneko, eta 8 Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE). Euskadiko Natura 2000 Sareko 60 naturaguneek 150.000 hektarea hartzen dituzte gutxi gorabehera. Alegia, lurraldearen % 20,5 inguru.

«Jaurlaritzan lanean ari da Arreoko lakua/Caicedo de Yuso, Valderejo/Sobrón/Artzena mendilerroa (KBE batean elkartutako bi BIL), Aizkorri-Aratz, Gorbeia eta Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko. Leku horien guztien izendapena datorren udan amaituko da», Ana Oregik esan duenez.

Haren hitzetan, «Natura 2000 Sarearen parte diren lekuak Europako natura-ondare baliotsuenaren lagin gisa hautatu dituzte, eta kontinenteko toki osasuntsuenak dira, ingurumenari dagokionez. Natura 2000 Sarearen parte izatea ingurumen-osasun ona izatearen ziurtapena da». Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak azaldu duenez, «Natura 2000

Sareari esker, Euskadin, lurraldearen % 10 babestetik % 21 babestera pasa gara».

Guardiako urmaelak Arabako Errioxako herri horren inguruko lau hezegune dira. Guardiako ekialdean eta hegoaldean daude, Arabako lurralde historikoan. KBEren azalera 79,72 hektareakoa da, garai batean BIL izendatu zena baino nabarmen handiagoa (45,2 ha), eta Biotopo Babestuaren mugakidea da.

Hiru hezegune (**Carralogoño**, **Carravalseca** eta **Musco**) aldi baterako urmael endorreikoak dira, jatorri eta funtzionamendu naturalekoak. Laugarrena (**Prao de la Paúl**), aldiz, antzina istildutako gunen baten gainean sortutako urtegi txiki bat. Carralogoño eta Carravalsecako urmaelak arian-arian desagertutako hezeguneak dira, laborantzarako lehortu baitziren; gaur egun, halako gutxi gelditzen dira. Halakoxea litzateke Muscoko urmaelaren kasua: drainatu, lehortu eta landatu egin zuten, beste hiru hezeguneak biotopo babestu izendatu zituzten arte. Geroztik, Musco lehengoratzeari ekin zioten.

1995ean, **Biotopo Babestu** izendatu zituzten Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paúleko urmaelak. Muskoko urmaela, garai hartan, drainatuta, lehortuta eta landatuta zegoen. Lurrak, gainera, jabe pribatuen esku zeuden. Horregatik guztiatik –eta nahiz eta Guardiako urmael multzoaren parte izan–, hasiera batean, ez zuten Biotopo Babestuaren barruan sartu; bai, ordea, haren aldirietako babes-gunean. Hala ere, Biotopo Babestutik kanpo geratu arren, etorkizunean bertan sartzeko planak egin ziren, urmaela lehengoratzeko programa bat egin baitzen.

Guardiako urmaelak **mahastiak nagusi diren inguru** batean kokatuta daude, Guardia ardogintzaren udalerrri nagusietako bat izanik. Jarduera horrek eragina izan du urmaelen ekosisteman. Izan ere, isurialdeko arroetako landaredi naturalak oso urriak dira (gaur egun, ia abeltzaintzarik ez dagoenez, albizti, belardi eta sastrakadi bakan batzuk besterik lursail publiko edo landutako lursail diren horietan. Nekazaritza-ekosistema irekien intereseko hegaztien bizilekua dira) eta mahastizaintzaren eraginez sedimentuak, ongarriak eta gai fitosanitarioak heltzen dira urmaelen kubetetara, urak garraiatuta.

Arazo horiek gorabehera, Carralogoñoak eta Carravalsecak (Musco lehengoratzefasean dago oraindik) sistema endorreikoetako ezaugarri batzuei eusten diete, tartean, euriari lotutako ur-erregimena, **urmaelak bete eta husten diren garaiak**, eta horren eraginez sortzen den gatz-arrastoa, paisaia eta ekologia aldetik balio handia duena.

Ingurune halofilo horiek **Ebro ibarreko** sistema endorreikoetako landaretaldeak eta flora-espezieak haztea ekarri du, horien hedapen-eremuaren iparraldeko mugatik oso gertu. Urmaelak beraiek, beteta daudenean, gune garrantzitsua dira uretako hegaztientzat (anaticoak, ardeidoak eta limikoloak), bertara joaten baitira negu-pasan edo jatera.

Bestalde, Prao de la Paúl urmaelak ezaugarri endorreikoak galdu ditu eta ur gezako aintzira baten moduan funtzionatzen du. Karpa edo ibai-karramarro

amerikarra bezalako **espezie exotikoak sartzeak** arazo ekologikoak sortu dituen arren, hegazti habiagileen populazioak hor dirau (ardeidoak, lezkadiko hegaztiak eta zingira-mirotzak), oro har, lehortuta dagoen ingurune batean. Urmaelak multzo bakar baten erako portaera dute, eta bertan elkarreragiten dute batik bat hegazti, anfibio eta ugaztun espezie erabiltzaileek (noizean behin igarabak eta bisoi europarrak ere agertzen dira).

Gainera, Habitaten Zuzentzarauan jasotako **Batasunaren intereseko 5 habitat mota** aurkitu dira gutxienez, horietako bi lehentasun-izaerakoak. Gutxienez, 12 hegazti-espezie bizi dira urmaelen inguruan, eta askotan egoten dira beste hegazti migratzaile asko bertan. Espezie mehatxatuen EAEko katalogoari dagokionez, bertan jasotako galzoriko 4 espezie, 4 espezie kaltebera, 8 espezie bakan eta interes bereziko 8 espezie bizi dira urmaeletan edo inguruan. Horregatik guztiagatik hautatu zen espazio hori Natura 2000 Sarearen parte izateko.

Guardiako urmaelen Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Biotopo Babestuak osatzen dute Guardiako urmaelen BILa, baina gehien bat publikoak diren lursail batzuekin handituta, eskala eta katastroa egokitu eta gero. Lursail horietan landaredi naturalaren hondar batzuk daude (albitzak, belarrak eta sastrakak), hiru urmaelak elkarrekin lotzen dituztenak, Prao de la Paúl nahikoa zabalerarekin inguratzeaz gain.

Gainera, Guardiako urmaelen Biotopo Babestuaren eta Guardiako urmaelen KBEren inguruan babes-gune bat definitu da, 284,40 ha-ko azalerakoa. Babes-gune horrek lau urmael endorreikoen ardo hidrografikoak osorik hartzen ditu (puntu batzuetan zabalagoa ere bada, intereseko habitatak barne hartzeko) eta, Prao de la Paúlen kasuan, bertako lursailen banaketara eta errealitatera moldatu da. Biotopo Babestua eta KBE izateaz gain, Guardiako urmaelak nazioarteko garrantziko hezeguneei buruzko Ramsar Hitzarmenean jasota daude 1996tik.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU-KBE IZENDATU DU IZKI, ARABAKO MENDIALDEAN

- Europako erakundeek Europar Batasunean biodibertsitatea babesteko egin duten apustu nagusia den Natura 2000 Sarean egongo dira aurrerantzean
- Euskadiko Natura Sarea Batasunaren intereseko 52 lekuk (BIL) osatzen dute. Horietako 46 (% 88) dagoeneko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dituzte
- Ana Oregi, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua: «Besteak beste, Natura Sareari esker, Euskadin babestua dagoen lurraldea % 10etik % 21era pasa da»

Gobernu-kontseiluak **Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)** izendatu du gaur Arabako Mendialdean dagoen **Izki** espazioa, Natura 2000 Sarearen barruan. Gainera, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) ere izango da. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik esan duenez, «Batasunaren intereseko habitat naturalak eta fauna eta flora basa-espezieak kontserbazio-egoera mesedegarri batean zaintzea eta lehengoratzea».

Natura 2000 Sarea 27.384 espaziok osatzen dute eta Europar Batasuneko lurraldearen % 18,14 hartzen du; orotara, 1,1 milioi km²-ko azalera. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Sarea Batasunaren garrantzizko 52 lekuk (BGL) osatzen dute. Horietako 46, hots, % 88, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu dituzte dagoeneko, eta 8 Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE). Euskadiko Natura 2000 Sareko 60 naturaguneez 150.000 hektarea hartzen dituzte gutxi gorabehera. Alegia, lurraldearen % 20,5 inguru.

«Jaurlaritzaren lanean ari da Arreoko lakua/Caicedo de Yuso, Valderejo/Sobrón/Artzena mendilerroa (KBE batean elkartutako bi BIL), Aizkorri-Aratz, Gorbeia eta Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko. Leku horien guztien izendapena datorren udan amaituko da», Ana Oregik esan duenez.

Ana Oregiren iritzian, «Natura 2000 Sarearen parte diren lekuak Europako natura-ondare baliotsuenaren lagin gisa hautatu dituzte, eta kontinenteko toki osasuntsuenak dira, ingurumenari dagokionez. Natura 2000 Sarearen parte izatea ingurumen-osasun ona izatearen ziurtapena da». Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak azaldu duenez, «Natura 2000 Sareari esker, Euskadin, lurraldearen % 10 babestetik % 21 babestera pasa gara».

Izkiko Natura 2000 naturagunea (ES2110019) Euskal Autonomia Erkidegoko hego-ekialdean dago, Arabako Mendialdean. Mugakide ditu honako hauek: Gasteizko mendiak, ipar-ekialdean; Berron ibaia, ekialdean; Toloñoko

mendilerroaren beheko aldeko bailarak, hegoaldean; eta Trebiñu, mendebaldean. Ihuda eta Ega ibaien isurialdeen barruan sartzen da gunea, Zadorra-Trebiñuko eta Egako unitate hidrografikoen barruan, hurrenez hurren, eta Ebro ibaiko mugapean.

KBEk eta Hegaztientzako BBEk muga berberak dituzte. Europako Batzordeak hasieran onartu zituen mugetan aldaketak egin dira, bai eskuragarri dagoen kartografia eguneratu delako, bai kontserbazioaren xede diren habitatak edo espezieak kontserbatzeko irizpideak aplikatu direlako. Horren ondorioz, KBE/BBEren azalera BILena baino 470 ha handiagoa da. Guztira, 9.482,10 hektareako azalera du (gehieneko altitudea: 1.173,73 m; gutxieneko altitudea: 572,51 m; batez besteko altitudea: 805,29 m).

Gainera, 100 metroko babes-zerrenda bat sortu da Natura 2000 Sareko naturagunearen inguruan, sailkatutako hiri-lurzoruak kanpo utzita. Izkiko KBE/BBEk hiru udalerritako eta 13 administrazio-batzarretako lurrak hartzen ditu. **Bernedon** dago Natura 2000 Sareko naturagunearen eremu zabalena. Handietan bigarrena da Arraia-Maetzuko udalerria. KBE/BBEko lurren % 5 baino zertxobait gehiago baino ez daude Kanpezun. Administrazio-batzar hauen lurren erdia baino gehiago Natura 2000 Sareko naturagunean dago: Apinaiz, Maeltu, Arluzea, Kinta, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturi. Bestalde, Korresko Administrazio Batzarraren lurralde oso-oso ere naturagunearen barnean dago.

Izkiko KEB/HBEBen titulartasun publikoko lur gehiena Erabilera Publikoko Mendien barruan sartzen da, eta lehen aipatutako Administrazio Batzarrak eta beste erakundeak dira halakoen titularrak. Guztira, erabilera publikoko mendien 34 eremu daude, eta 9.078,47 ha hartzen dituzte (hau da, Natura 2000 gunearen % 95,74).

Izkiko gunearen ezaugarri nagusia hau da: baso-masa zabal bat da, hareazko lautada batean kokatua. Izki ibaiaren adarrek eratutako sakan txikiak zeharkatzen dute lautada, ibaiak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen baitu gunea. Askotariko landare-formazioak eraten dira, litologiak eta orientazioak direla-eta: horien artean, aipatzekoa da ameztia, Europako zabalenetakoa baita» Era berean, Izkin, Batasunaren intereseko 30 habitat mota daude: horietatik 10, lehentasunekoak habitatak dira. Habitat horietan, intereseko flora- eta fauna-espezie asko bizi dira.

Flora-espezieen artean, nabarmentzekoa da Olandinako urmaeleko nenufar zurien populazioa. Euskadiko bakarra da, eta iberiar penintsulako handiena. Faunari dagokionez, Izkin bizi diren ornogabeen artean, intsektu saproxilikoak eta odonatoak aipatu behar dira. Anfibioen 12 espezie daude Izkin. Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan jasota daude horietako hiru: baso-igel jauzkaria, apo lasterkaria eta iberiar apo pintatua. Izkiko KBE/BBEko eremuko ugaztunen artean, honako hauek aipatu behar dira: kiropteroen artean, arratoi-belarri handia, Bechstein saguzarra, saguzar biboteduna eta ferra-saguzar handia; eta mustelidoen artean, bisoi europarra eta igaraba.

Hegaztiei dagokienez, okil ertainaren presentzia da bereziki aipagarria. Espezie horretako 750 animalia baino gehiago daude Izkin, eta horrek garrantzi berezia ematen dio naturaguneari penintsularen barruan, okilen familiako espezie horri dagokionez. Bestalde, Izki interes bereziko eremuen barruan dago ugatzari, sai zuriari eta sai arreari dagokienez.

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU-KONTSEILUAK GERNIKA-MARKINAKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA ONARTU DU

Kontseiluak Gernika-Markinako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onartu du. Idazten ari ziren bitartean indarrean zegoen udal-plangintza jasoko du aipatutako plan horrek, betiere informazioa emateko asmoarekin. Hortaz, plangintza horren partetzat hartuko dira hura indarrean jarri arte egiten diren aldaketak.

Lurralde Plan Partzial honen arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren antolaketa eta kudeaketa legeria sektorial espezifikoa jasotako tresnen arabera egingo da, eta lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa, erabilera-, jarduera- eta eraikuntza-erregimena aratuko ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak.

Urdaibai Biosfera Erreserban, ekipamendu eta kokalekuen proposamenak Lurralde Plan Partzialean identifikatutakoak izango dira, baita azpiegituren eskemak ere. Gernika-Markinako eremu funtzionaleko udalerrietako hirigintza-dokumentuak Lurralde Plan Partzialaren xedapenetara egokitu beharko dira, baldin eta plana indarrean jartzen denean plan orokorrak edo arau subsidiarioak formulatu, berrikusi edo aldatzeko prozesuetan badaude.

Baldin eta Lurralde Plan Partzial hau indarrean jartzen denean plangintza orokorreko tresnen eta horiek garatzeko tresnen lehen onarpena egin bada, eta hirigintzaren kudeaketako tresnak izapidetzen ari badira, eta oraindik behin betiko onarpena jaso ez badute, udalek plangintza orokorreko eta hori garatzeko tresnak Lurralde Plan Partzial honen xedapenetara egokitu ahal izango dituzte, kudeaketa-tresnen izapideak berriz hasiz. Edozein kasutan ere, udalen hirigintza-arloko plangintza orokorra plan honen xedapenei egokitu beharko zaie, hura indarrean jarri eta bi urteko epean, gehienez ere.

Lurralde Plan Partziala Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean aurreikusitako formulazio- eta tramitazio-prozesu luze baten emaitza da. Prozesu horren faseetan (aurrerapena, hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpena), lurraldeko herri-administrazioek (tokiko administrazioak, foru-administrazioak eta autonomia-erkidegokoak) parte hartu dute, baita eremu funtzional horretako gizartearen ordezkariak zabal batek ere.

Gernika-Markinako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak udalerrri hauek biltzen ditu: Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarroa, Sukarrieta eta Ziortza-Bolibar.

Plan honen helburua eremu funtzionalaren lurralde-antolamendu jasagarria hamasei urterako zehaztea da, haren lurralde-egitura eta eredia ezarriz. Planari egokitu beharko zaizkio udal-plangintzak, Lurralde Plan Sektorialak eta eremu funtzionalean eragina duten bestelako jardunak.

Lurralde-eredua oinarrizko baldintzen izaera duten helburu hauen inguruan egituratzen da: a) Eremu funtzionaleko populazioa mantentzea. b) Bizitoki-guneak kontzentratzea. c) Garapen ekonomikoa sustatzea, horren oinarri den ekoizpen-espazioa sortuz eta antolatuz d) Berezitasunei eustea eta bultzada ematea, naturaren eta paisaiaren balioen aldetik. e) Garraioen arteko intermodalitate eroso eta eraginkorra lortzea. f) Bizikletaren erabilera eta oinezkoentzako ibilbideak sustatzea. g) Energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea. h) Herritarren ekipamendu-beharrak asetzea. i) Andeatutako guneak berroneratzea eta erabilera ezegokia edo ausazkoa duten guneak birmoldatzea. j) Landa-ondareko eraikinak zaintzea eta balio historikoa edo/eta kulturala duten guneak birgaitzea. k) Historia, kultura edo arkitektura aldetik balioa duen ondarearen kontserbazioa sustatzea, balio turistiko bezala.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK BARRIKAKO BARRIKABASOKO ITSASERTZA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA ONARTU DU

Eusko Jaurlaritzak itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa onartu du, Barrikako Barrikabaso inguruari dagokiona. 2004ko azaroan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak onartu egin zuen Txipio Bai elkarte naturalistak Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduen aurka jarri zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Agindu horiek Barrikako arau subsidiarioak aldatzen zituzten, lursail batzuk urbanizatzeko egoki bezala sailkatuz eta espazio libreen sistema orokor batzuen birsailkapena eginez Muriolan eta San Telmon. Epaitegiak foru-agindu horiek zuzenbidearen arabekoak ez zirela ebatzi, eta indarrik gabe utzi zituen. Kasazio-errekurtsoa jarrita, Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzien salak 4778/2009 sententzia eman zuen 2009ko uztailaren 3an, errekurtso hori bidezkoa ez zela ebatziz.

Aldaketak 62 hektarea inguruko azalerari eragiten dio lurzoru urbanizaezinean. Hor, kategoria hauek definitzen dira: babes berezi zorrotza labarretan eta babes berezi bateragarria gainerako esparruan. Era berean, Muriola aldean nekazaritza eta abelazkuntzako kategoriarekin kalifikatuta dagoen eremu txiki batean, kategoria horren ordeztu, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala kategoria jartzea planteatzen da. Aldaketa horiek Barrikabasora mugatzen dira eta aldi jakin baterako dira. Hortaz, ez dute Lurralde Plan Sektorialaren alor garrantzitsu bakar bat bera ere aldatzen.

2014ko ekainaren 19an Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren agindu bidez, ez funtsezkotzat jo zen Barrikako Barrikabaso inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko proposamena. Hori dela-eta, izapidetze-fasean, 206/2003 Dekretuan, irailaren 9koan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen aldaketa ez funtsezkoak onartzeko prozedura arautzekoak, aurreikusitako izapideak bete dira.

Presidencia

**EL GOBIERNO VASCO PROPONE A MARGARITA URÍA
REPRESENTANTE DE EUSKADI EN EL CONSEJO CONSULTIVO DE LA
AGENCIA ESPAÑOLA DE PROTECCIÓN DE DATOS**

- **Cubrirá la vacante de Jose Ignacio Pariente de Prada en el cargo, tras su cese con Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos el pasado mes de enero.**

El Consejo de Gobierno ha decidido en su reunión de hoy, proponer a la Directora de la Agencia Vasca de Protección de Datos, Margarita Uria, como representante de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el Consejo Consultivo de la Agencia Española de Protección de Datos.

De esta forma, Margarita Uria cubrirá la vacante de Jose Igancio Pariente de Prada en este cargo, tras su cese como Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos el pasado 26 de enero.

El Gobierno vasco atiende así el artículo 38 de la *Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Caracter Personal*, que dispone que el Director de la Agencia Española de Protección de Datos debe estar asesorado por un Consejo Consultivo compuesto, entre otros, por una representación de cada Comunidad Autónoma que cuente con una Agencia de Protección de Datos propia.

Desarrollo Económico y Competitividad

EL PROGRAMA MEC CRECE UN 7,3% Y DESTINA 3.683.000 EUROS PARA AYUDAS A LA MODERNIZACIÓN DE LOS ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES

El Programa de Apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales, MEC, busca impulsar la innovación, la mejora de los instrumentos de gestión y las infraestructuras de los comercios vascos. Este año su presupuesto crece un 7,3% y destina 3.683.000 euros a diversas líneas de ayuda para lograr estos objetivos.

La cobertura de las ayudas se extiende a aquellas inversiones que precisen los comercios para acrecentar el atractivo de sus establecimientos y servicios, que aporten mayor valor añadido, con la excepción de la adquisición de locales o compra de vehículos.

Las ayudas se materializan en subvenciones a fondo perdido del 15% o del 20%, según se trate de inversiones en mobiliario, obra civil, equipamiento vario, rótulos o equipos informáticos, aplicaciones, o sus complementos respectivamente.

Las entidades beneficiarias son PYMEs, cuya actividad principal, en cuanto a volumen de negocio, sea comercial, y que inviertan en establecimientos de Euskadi.

Las ayudas se encaminan a empresas con actividad comercial, entendiéndose por esta la puesta a disposición en el mercado de productos o mercancías adquiridas con esa finalidad, así como la venta de bienes de consumo final realizada directamente por los productores/as, artesanos/as o industriales, entendiéndose por tales los bienes no destinados a integrarse en procesos de producción, comercialización o prestación de servicios a terceros.

La subvención puede incrementarse en caso de que las empresas hayan obtenido alguna certificación de calidad, estén asociadas, inviertan en software de gestión, el personal empleado este en posesión de alguna titulación reglada o certificación relacionada con el sector comercial, tenga el reconocimiento de entidad colaboradora para la igualdad de oportunidades entre Mujeres y Hombres, o haya participado en un programa de Transmisión Empresarial.

Las inversiones para ser subvencionadas han de ser superiores a 900 euros en el caso del equipamiento informático, o de 3.000 euros en el resto.

Las personas interesadas, pueden presentar sus solicitudes hasta el 15 de julio, en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, en las Oficinas del Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco (Zuzenean), o en cualquiera de los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común

